

txanela

Irakaslearen gidaliburua
(zirriborroa)

7

Goazen mendira!

(Txanela - Material globalizatua,
Lehen Hezkuntza - 2. maila)

ZAZPIGARREN UNITATE DIDAKTIKOA “GOAZEN MENDIRA!”

Gaia

Herri guztien inguruan badago mendi, mendixka edo natur guneren bat. Horren azterketa bideratuko dugu: ibilbidea, planoa (kokagunea), fauna, flora, eraikuntzen izenak, historia pixka bat, aterbe etxeak, iturriak, putzuak...

Sekuentzia tematikoa

- Euskal Herriko paisaiak; iparraldea eta hegoaldea.
- Norberaren eskualdea eta mendiak.
- Mendi ibilbideen mapak, koadernotxoak, liburuen, etab.arren behaketa eta azterketa.
- Mendi edo naturagune baten ibilbidean zehar aztertu beharreko elementuak.
- Zeinu konbentzionalak.
- Datu orokorren bilketa.
- Elementuen azterketa:
 - Bizigabeak: Eraikinak.
 - Bizidunak: Landareak; Zuhaitzak eta Belarrak.
 - Animaliak.
- Mendian entzun daitezkeen soinuak.
- Paisaia.
- Gure ibilbidearen mapa.
- Proiektua burutzen: koadernotxoa osatu edo ibilbidea seinaleztatu.
- Gurasoekin irteera.

Proiektua: bi proposatzen ditugu aukeran. Ibilbidearen azterketa egin ondoren, gela guztiak egindako lanak bilduz, ibilbidearen koadernotxoa osatzea, edo, panelak egin eta bidea seinaleztatzea.

Irteerak:

- Aztertuko dugun mendi edo naturagunera. Proiektuaren azterketak, irteera bat baino gehiago egitea eska dezake.
- Eskulturak (ikus Artelana, gidako 64. jarduera) egiteko irteerak ezpalak, adar idorrek, enbor zatiak biltzeko aprobeztatu.
- Proiektua amaitu ondoren gurasoekin batera irteera egitea proposatzen dizuegu.

Ipuina: *Horacio eta jaguarra*. Txiliku. Kuku saila. Elkar.

ZEHAR LERROAK, TREBETASUN SOZIALAK

Giza eskubideak, harremanak, bake hezkuntza.	Lankidetasuna, kooperazioa. Beldurra. Gezurra esatearen ondorioak. Lapurreta egitearen ingurukoak.
Ingurumenaren kontserbaziorako hezkuntza	Bizidunekiko errespetua. Ingurumenarekiko errespetua.
Osasun Hezkuntza	Mendian ibiltzeko gomendioak.

EUSKAL DIMENTSIOA

Hizkuntza eta literatura	Euskal mitologiako kondaira: <i>Anbotoko Mari</i> Euskal ipuin zaharra: <i>Katu beltza</i> Ipuina: <i>Muturtxo</i> . Txiliku. Olerkiak. J. Ormazabal. Igarkizunak. X. Etxaniz. Esamoldeak eta esaera zaharrak.
Ingurumena	Euskal Herriko paisaiak eta erliebea. Gure inguruko fauna, flora eta eraikinak (baserriak, zubika, errotak...).
Musika eta gorputz motrizitatea	Gaiaren abestia: “Mendira!”, “Horra Udaberria” I.Urbieta “Ikusi mendizaleak” Musika: S. Lopez de Guereño, Hitzak: herrikoia “Goazen mendirik mendi” Herrikoia. “Ikusten duzu goizean” Musika: herrikoia, Hitzak: J.B.Elizanburu “Ni bizi naiz baserrian” Musika: Herrikoia-Oskorri. Hitzak: X. Amuriza “Lastozko zubie” Oskorri. Musika: Natxo de Felipe (Oskorri); Hitzak: herrikoia. “Txoria txori” Musika: Mikel Laboa; Hitzak: Joxan Artze. Entzunaldia: Usandizaga Soraluze, Jose Maria.
Arte Plastikoak	Remigio Mendiburu “Argi hiru zuri” eta Korrikaren lekukoa.

IKT jarduerak

Duela zenbait urte hasita, Ikastolen Elkarteak hezkuntza eremuko I+G+B egitasmoak eta proiektuak garatzen ari da. IKT (Informazio eta Komunikazio Teknologia) alorrean hainbat urtetako eskarmentua metatua du, euskarazko eta euskal kulturaren ardaztutako software kurrikularra eta aisialdikoa ekoiztean aitzindaria izanez. Horren lekuko dira, besteak beste:

- **IKASYS** Ikastolen Elkarteak garatutako hezkuntza alorreko proiektu berritzailea. IKASYS proiektuak konpetentzien garapenerako beharrezkoak diren baliabideen sistematizazioa du helburu nagusia; horretarako, trebakuntzan, memorizazioan eta ulermenaren garapenean oinarritutako tipologia askotariko jardura sorta handia eskaintzen du.
- **Txanela webgunea** (www.txanela.net). Lehen Hezkuntzarako IKT konpetentziak hainbat konstanteren inguruan lantzeko eta garatzeko bidea aurkituko da Txanela webgunean. Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira. Oraingoz, “Txanela Globalizatua” deritzan arlo multzoan (Euskara- Ingurunea-Plastika) txertatu dira IKT jarduerak.
- **Ostadar webgunea** (www.ostadar.net). Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta ikasleei zuzendurik, arloz arloko eta mailaz mailako jarduerak aurkezten dira han. Irakasleari, gida didaktikoa jardueraz jardura zehaztuta eskaintzeaz gain, IKT jarduerak egiteko eta gidatzeko zehaztapen guztiak ematen zaizkio. Ikasleari, IKT jarduerak proposatzeaz gain, haiek egiteko behar dituen baliabideak ematen zaizkio. Oraingoz, Ostadar proiektuko hiru arloetan txertatu dira IKT jarduerak: Naturaren Zientziak, Gizarte Zientziak eta Euskara eta Literatura.

* * * * *

Virtusbooks plataforma

IKASELKAR argitaletxeak (Ikastolen Elkarteak eta Elkar argitaletxeak sortua) 2011-2012 ikasturtetik aurrera beste aukera bat eskainiko du. Beste baliabide bat eskaintzen da teknologia berrien eta IKT jardueren arloan. **Virtusbooks** (<http://www.virtusbooks.com/>) plataformaren bidez zoom-liburua eskaintzen zaie irakasleei eta ikasleei, ohiko ikasliburuen osagarri. Zoom-liburu horretan hainbat baliabide txertatu dira: bideoak, audioak, fitxategiak, estekak... Txanela webgunean eta Ostadar webgunean dauden hainbat IKT-jardura ere gehitu zaizkio. Horrela, irakasleak gune berean izango ditu Txanela proiektuak (Ostadar proiektuak) dituen baliabide guztiak, hainbat proiektagailu, erreproduzitzailerik, etab. erabili beharrik gabe.

Hurrengo orrialdean agertzen den taularen bidez irakasleak jakingo du zein jardueratan izango duen baliabide digitaletara jotzeko aukera. Bestalde, irakasleak berak ere erantsi ahal izango ditu baliabideak, gero ikasleek arbel digitalean edo bakoitzaren ordenagailuan ikus ditzaten.

TXANELA 2

IKASLEAREN LIBURUA - 7. UNITATE DIDAKTIKOA

BALIABIDEAK

Liburu digitalaren eta gidaliburuaren arteko lotura

JARDUERA	BALIABIDE MOTA	EDUKIA	TXANELAKO ORRIALDEA	LIBURU DIGITALEKO ORRIALDEA	OHARRAK
0		Baliabideen taula	3	183	
1		Azalari behatzea	3	183	
2		Komikia	4-5	184-185	
4		Proiektuaren aurkezpena	6-7	186-187	
4		Euskal Herriko paisaiak 1	7	187	
4		Euskal Herriko paisaiak 2	7	187	
5		<i>Ikusi mendizaleak</i>	7	187	
5		Ikusi mendiazaleak	7	187	
6		Euskal Herriko zein aldetan bizi zara zu?	8	188	
6		Euskal Herria: La mirada magica	8	188	
7		Ibilbidean aztertuko ditugun elementuen eskema	9	189	
8		Goazen mendira	9	189	
9		Bideoa aitzakia	10	190	
11		<i>Goazen mendirik mendi</i>	10	190	

12		<i>Mendira!</i>	11	191	
13		<i>Hotsak bereizten</i>	11	191	Musikako lan-koademoa, 45. or.
16		Txirula ikasten: <i>Eskolan gaude</i>	11	191	Musikako lan-koademoa, 48. or.
18		<i>Txirulak zortzi zulo ditu</i>	11	191	Musikako lan-koademoa, 50.or
20		<i>Erein, erein</i>	11	191	
21		<i>Horra udaberria!</i>	11	191	
22		Txistea	11	191	
24		Gurasoentzako eskutitza	12	192	
25		Ibilbideko elementuen sailkapena	12-13	192-193	
26		<i>Ikusten duzu goizean</i>	13	193	
27		Bizigabeak: Eraikinak aztertzen	14-15	194-195	
31		<i>Ni bizi naiz baserrian</i>	15	195	
31		<i>Lastozko zubie</i>	15	195	
32		Lascaux-ko kobazuloa	15	195	
32		La cueva de Altamira	15	195	
37		Bizidunak: Landareak: Zuhaitzak	16-17	196-197	
40		Bizidunak: Landareak: Zuhaixka eta belarrak	18-19	198-199	
42		Bizidunak: Animaliak	20-21	200-201	

45	 IRAKASLEA	Esaera zaharrak 1	21	201	
45	 IRAKASLEA	Esaera zaharrak 2	21	201	
45	 IRAKASLEA	Esaera zaharrak 3	21	201	
47		<i>Txoria txori</i>	21	201	
53		Olerkiak	22	202	
56		Ipuina aitzakia	23	203	
58		The mountains	24	204	
61		Bistak marrazten	25	205	
62		Entzunaldia: Jose Maria Usandizaga	25	205	
62		Jose Maria Usandizaga	25	205	
62	 IRAKASLEA	Jose Maria Usandizagaren biografia 1	25	205	
62	 IRAKASLEA	Jose Maria Usandizagaren biografia 2	25	205	
63		Artelana: Remigio Mendiburu	26	206	
63		Remigio Mendiburu	26	206	
63	 IRAKASLEA	Biografia de Remigio Mendiburu 1	26	206	
63	 IRAKASLEA	Biografia de Remigio Mendiburu 2	26	206	
63		Korrika txikia 1	26	206	
63		Korrika txikia 2	26	206	

63		Korrika	26	206	
64		Bueltako komikia	27	207	
65		Ibilbide baten mapa aztertzen	28-29	208-209	
66		Proiektua gauzatzen	30-31	210-211	
68		Sintesia	32	212	

JARDUEREN ANALISIA

1. Azalari behatzea eta elkarrizketa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Unitate didaktikoaren azala

Orain arte bezala, gai bakoitzari hasiera emateko, azalari behatzea eta elkarrizketa bultzatuko ditugu, aurreikuspen-estrategiak landu eta haurrak motibatze asmoz. Gogoratu Tough-en hizkuntz-funtzio batzuk martxan jar ditzakezuela egoera eta erantzunen arabera.

- *Azalaren deskribapena. Zer ikusten dugu? Elementuak, pertsonaiak...*
- *Idatzita dagoena irakurri. Zer jartzen du?*
- *Izenburuari erreparatu. Zer adierazten digu izenburuak?*
- *Azala ikusiz, marrazkiak ere pista asko ematen dizkigu. Zer nolako gaia jorratuko dugula uste duzue?*
- ...

2. Komikia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 4 eta 5. or.

Irakurketari ekin aurretik haurrak girotu eta hizkuntza funtzio batzuk aktibatuko ditugu.

- *Izenburua irakurri eta, honen inguruko elkarrizketa izango dugu. Zenbat urte beteko ditu Maddalenek? Nola dakizue? Gustuko al dituzue urtebetetzeak? Zergatik?*
- *Urtebetetzeak zergatik eta zertarako ospatzen dira?*

Hurrei, banaka, komikia irakurtzeko tartetxo bat eman ondoren, komikiaren haria erabiliaz, ekintzak iragartzen, proiektatzen eta imajinatzen saiatuko gara. Honez gain, opariak, ezustekoak, lagunak, familia eta heldutasuna izan ditzakezue hizpide.

- *Nolako gaua pasatuko zuen Maddalenek jakinik esnatzerakoan bere urtebetetze eguna dela?*
- *Astegun edo asteburua da? Arrazoitu. Goiza edo arratsaldea dela uste duzue? Zergatik? Arrazoitu.*
- *Zer sentituko du nagusiki Maddalenek gaurko egunean? Ba al dago irudiren bat sentimendu horren adierazgarri izan daitekeena?*
- *Eta zuek, zer sentitzen duzue zuen urtebetetze egunean? Zergatik? Zer da gehien gustatzen zaizuena egun horretan? Besteen urtebetetzeak zeuenak beste disfrutatzen dituzue? Zergatik?*
- *Nortzuk dira mahai-inguruan dauden pertsonak? Baten bat falta da? Zergatik ez ziren etorriko falta direnak?*
- *Zergatik esaten dio aitonak desio bat eskatu eta putz egiteko kementsu?*
- *Zein da Maddalenek eskatu duen desioa? Beteko da? Nola dakizue?*

- Zer uste duzue sentitu duela Maddalenek amak oparia eman dionean? Zuek zer sentitzen duzue horrelakoetan? Esandako sentimenduak definitzen saiatuko gara, urduritasuna, poza...

- Zer adierazi nahi du amak "osasunarekin urratu" esaten duenean? Amak Maddalenek oinetakoak berehala apurtzea nahi izango al du? Noiz erabiltzen da esaera hau? Zer esan nahi du? Antzekorik ezagutzen al duzue?

- 9. binetan Maddalen eta Fermin elkarri begira daudenean keinuen bidezko komunikazioa ematen da. Zein da batak besteari igorritako mezua?

- Nora joango dira gure lagunak oraingo honetan? Zer uste duzue jorratuko dugula gai honetan? Gaia gustukoa izango al duzu? Zergatik? Momentu honetan gogora ekarri dezakezue iazko esperientzia.

Hizketaldia bukatzerakoan, taldeko irakurketa egin dezakegu. Hasteko, paperen banaketa egingo dugu, denon artean adostuz zein ikaslek irakurriko duen pertsonaia bakoitzari dagokion testua. Komenigarria litzateke ikasleei berriro gogoratzea, arreta berezia jarri beharko dietela komiki-hizkuntzaren baliabideei, ozeneko irakurketan, testua zuzen irakurtzeaz gain doinuaren garrantzia azpimarratuz.

3. Maddalen urtebetetzea ospatuko dugu

Lan egiteko era: Talde handian

Aspalditik Maddalen lagunak gara, beraz guk ere bere urtebetetzea ospatuko dugu. Gela bitan banatuko dugu. Lehendabiziko taldeko neska-mutilek, musikarekin lagunduta, dantza egingo dute. Bigarren taldeko neska-mutilek irudimenezko argazki-makina edukiko dute. Halako batean irakasleak "Hiru, bi, bat... argazkia" esanez, musika geldiaraziko du. Dantza egiten dutenak geldirik geratu behar dira, besteek argazki bat ateratzeko moduan. Norbait mugitzen bada, kanpora irten eta musika txaloz edo perkusiozko tresnaren batekin lagunduko du.

4. Proiektuaren aurkezpena eta Euskal Herriko paisaiak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 6 eta 7. or.

Naturan paseatzea gustagarria dela aipatuz, proiektuaren aurkezpena egin zaigu; bide, mendi edo natur gune bateko ibilbidearen azterketa. Proposamena ikastola inguruan edo hurbil dagoen ibilbide baten azterketa egitea da, kontuan izan behar baitugu, unitate eta proiektu hau burutzeko irteera batekin ez dugula nahikoa izango. Dena den, aukeraketa posibilitate eta nahiaren arabera, irakaslearen esku egongo da. Ikastola inguruan ibiliko bagara ere, naturaren azterketa honek aukera ematen digu Euskal Herriko paisaia ezberdinei erreparatzeko (paisaia menditsua, basamortua, lautada...) eta bertan agertzen diren elementu orografikoetaz hitz egiteko (errekak, mendiak, haranak...).

Talde handian orrialde bi hauetan agertzen diren argazkiei behatu eta bakoitzaren ezaugarriak aipatzeaz gain, bata besteari alderatuko ditugu eta ezberdintasunak nabarmendu (kolorea, erliebea...).

Gero, Ferminek eta Maddalenek euren eskualdeei egiten dieten aipamena aprobetxatuz, puntu kardinal nagusiei leku egingo diegu jarduera honetan: Iparra, Hegoa, Ekialdea eta Mendebaldea aipatuz.

Erliebea aipatzen denez, oso egokia litzateke, erliebedun Euskal Herriko mapa eskuratzea, mapa honen bidez, ukituaz eta behatuaz, haurrak jabetzen baitira bere herriaren kokapenez, erliebeaz...

5. Abestia: Ikusi mendizaleak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: CDa

Ikusi mendizaleak abesti tradizionala entzungo dugu talde handian, betiko pausuak jarraituz.

- Entzun eta gozatu.
- Entzun eta letra eta mezuaz jabetu, gero honen inguruko elkarrizketa bultzatuz:
 - Ideia nagusia zein den eztabaidatu denon artean.
 - Mendizale hitza nabarmenduko dugu eta ahoz definitzen saiatuko gara. Definizioetan zehaztasunera joko dugu, ahal dugun hitz kopuru txikiena erabiliz.
- Bukatzeko, letra idatzi, kopia edo diktaketaren bidez, irudia egin, eta abestia irakurri, buruz ikasten saiatuko gara, gero, denok batera abesteko.

6. Euskal Herriko zein aldetan bizi zara zu?

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian/Bakarka/Binaka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 8. or.

Jarduera honen bidez Euskal herriko hainbat paisaiatik, norberaren eskualdera hurbilduko gara, eta talde txikitan eskualdearen ezaugarriak ahoz definitzen saiatuko gara. Gero, talde handian eztabaidatuko ditugu.

Ondoren, ikasleek bakarka edo binaka, orrialde honetako galderak, idatziz erantzun beharko dituzte, jarraian, talde handian erkatuz.

Bukatzeko klipetan agertzen den informazioa irakurri eta argitu ondoren, txoko zurira, aipaturiko koadernotxo eta liburuak ekartzeko proposamena luzatuko diegu ikasleei.

7. Ibilbidean aztertuko ditugun elementuen eskema

Lan egiteko era: Binaka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 9. or.

Ibilbidearen azterketa egiten gabiltzan bitartean, mapa marraztu, datu orokorrak bildu eta ibilbidean zehar aurkitutako elementuak aztertuko ditugu. Hirugarren puntu hau lantzeko, iaz parkearen azterketa egiteko erabili genuen eskema bera erabiliko dugu. Bada aldaketa txiki bat, iaz ez bezala, bizigabeen sailkapenean, eraikinak agertzen baitira, eta bizidunen artean, animaliei dagokionean, pertsonak ez dira ageri sailkapen honetan.

Ikasleek eskema honek aditzera ematen dizkigun puntuak aztertuko dituzte, binaka.

Ondoren, talde handian, iaz parkearen azterketa egiterakoan ikusi eta ikasitakoa gogora ekartzeko aprobetxatuko dugu.

Bukatzeko Urdintxoren esaerari erreparatuz, “*azkar eta ongi gehienetan haserre*”, esanahia argitzen saiatuko gara eta esaera hau zein testuinguruetan erabili daitekeen eztabaidatu eta buruz ikasiko dugu. Esaera honen esanahia beretsukoa honokoa duzue baita ere: “*Lan azkarra, lan kaxkarra*”.

8. Bideoa

Lan egiteko era: Talde handian

Unitate honetan zehar egin beharreko lanaren inguruko motibazio bideoa dugu hau. Haur taldea ibilbide bat aztertzen ari da irakaslearekin batera. Bertan, eskeman azaltzen diren elementu batzuen behaketa ari dira egiten. Ikusi aurretik, eskema azertu dezakegu eta ikusi ondoren, bideoa hurrek zein motatako elementu aurkitu dituzten eta gure eskemaren arabera nola sailkatuko genituzkeen hitz egingo dugu.

9. Bideoa aitzakia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 10. or.

Talde handian, bideoan ikusitakoari buruzko elkarrizketatxo bultzatuko dugu, azterketa egiterakoan jarraitu beharreko pausuak, zailtasunak, tresneria...

Ondoren, denon artean, aztertuko dugun ibilbidea eta burutuko dugun proiektua adostuko ditugu. Ibilbidea aukeratzeko orduan komenigarria litzateke kontuan izatea, honen azterketa egiteko, irteera bat baino gehiago egin beharra izango dugula.

Gero, ikasleek banaka, ibilbidearen izena eta aukeraketaren zergatia idatzi beharko dute euren liburuan.

Honen ostean, talde handian zeinu konbentzionalak zer diren irakurri eta argituko dugu. Jarraian, binaka, euren ustetan, ikur bakoitzak adierazten duena idatziz adierazi beharko dute.

10. Mendian ibiltzeko gomendioak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 90. or.

Lehenengo irteera egin aurretik komenigarri ikusten dugu mendian ibiltzeko aholku edo gomendio batzuk irakurri eta gogora ekartzea. Ikasleak, gomendio hauek bakarka irakurri ondoren, talde txikitan jarriko dira eta gomendio bakoitzaren garrantzia azpimarratzeko argudioak botaz, kontrako jokabidea izateak sor ditzakeen kalteez ere eztabaidatuko dute. Gero talde txikietan ondorioztatutakoa, talde handian erkatuko dugu.

Argudiaketan, esaldi kausalak era egokian erabiltzen saiatuko gara (...-elako, bait...). Baita, iritzia emateko formulak (nire ustez, nire iritziz...- ela pentsatzen dut....) eta desadostasuna eta adostasuna adieraztekoak ere (erabat ados, nik berriz ez dut horrela pentsatzen...).

11. Abestia: Goazen mendirik mendi

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: CDA

Lehenengo ibilaldia hurbil dagoenez, "Goazen mendirik mendi" abesti herrikoia entzungo dugu talde handian, betiko pausuak jarraituz.

- Entzun eta gozatu.

- Entzun eta letra eta mezuaz jabetu, gero honen inguruko elkarrizketa bultzatuz. Elkarrizketan puntu hauek eztabaidatu ditzakezue, mendian ibiltzea, kirola eta atsedena direla aldi berean, bistaz, soinuez eta usain askoz gozatzea, osasun eta bizi kalitateari egiten dion mesedea...

- Bukatzeko, letra idatzi (kopia edo diktaketaren bidez) , irudia egin, eta abestia irakurriz, buruz ikasten saiatuko gara, gero, denok batera abesteko.

12. Musika ikasten ari gara

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua 11. or./CDa/CD-ROMa

Imanol Urbietak sortutako gaiaren inguruko abestia ikasi eta irakurriko dugu. Gogoratu CD-ROMean abestia entzun eta grabatzeko aukera daukazuela.

Musikako lan-koadernoko proposamenak

13. Hotsak bereizten

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoa, 45. or., 7. 1. fitxa/CDa, jarduerak

Arreta pixka bat ipiniz, jolasa irudituko zaie haurrei. Agian, hirietako umeek hanka sartzeren bat edo beste egin dezakete. Hala balitz, gehiagotan eraman beharko dira mendi eta baserri inguruetara.

14. Txirula ikasten

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Musikako lan-koadernoa, 46. or., 7. 2. fitxa

Si nota ongi landu ondoren, heldu da beste nota bat ikasten hasteko unea, La izango da. Hori pentagraman, Si baino maila bat beherago dagoenez, txirulaz jo ahal izateko, zulo bat gehiago itxi beharko dugu. Horretarako txorro, morro eta piko jarriko ditugu lanean. Partaide berria erdiko hatza izango da, luzeena.

Lehenengo urratsa zuloak ongi tapatu ditugun frogatzea da. Hala egin badugu, soinua garbia aterako zaigu. Jarraian, errepika tankerako ariketak burutuko ditugu berriro ere. Eta azkenik orrialde honetan agertzen den partitura landuko dugu. Erritmoa aztertu, zein nota agertzen diren ikusi (kasu honetan bakarra), solfeatu eta txirulaz jo.

Une egokia da bi notekin jolasean hasteko. Txirulak duen ezaugarriarik nabarmenena baieztatzeko prest gaude, hau da, melodiak burutzeko gaitasuna. Horretarako Si eta La notak konbinatuko ditugu. Beti bezala errepikekin hasiko gara. Hona hemen, irakasleak ahoz esateko, zenbait eredu:

. □□□□□
SI - SI / LaLa-LA

. □□□□□□
SiSi- SI / LaLa-LA

. □□□□□□□
SiSi-SiSi / LaLa-LA

. □□□
SI - SI / LA

. □□□□[~]
SiSi-SiSi / LA

. □□□□
SI - SI / LA - LA

. □□□□□
SiSi- SI / LA - LA

Eta abar.

Oraingoan La izango da abiapuntua eta bigarren konpasean Si sartuko dugu:

. □□□□□
LA - LA / SiSi- SI

□□□□□□
LaLa- LA / SiSi- SI

□□□□□□□
LaLa-LaLa / SiSi- SI

□□□□□□
LaLa-LaLa / SI - SI

□□□□□
LaLa- LA / SI - SI

Eta abar.

Aurreko ariketak ongi burutzea lortu badugu beste urrats emango dugu:

□□□□□
SI - LA / SiSi- LA

□□□□□□□
SiSi-LaLa / SiSi- LA

. □□□□□
SI - SI / LaLa- SI

□□□□□□□
SiSi-SiSI / LaLa- SI

□□□□□□□
SiSi-LaLa / LaLa- SI

Eta abar.

Ez da komeni, gure iritziz, txirula saio hauek gehiegi luzatzea. Irakasleok hartu beharko duzue neurri egokia.

Errepikekin ariketak egiteko beste modu bat proposatzen dizuegu. Irakasleak, hurrek errepikatu beharko dituzten eskemak ahoz adierazi ordez, txirulaz jotzea. Honela, ikasleak, eredu egokia jasotzen ari dira, haize kantitatea eta hatzen postura batez ere.

Hatzen kokapena dela eta argi dago zuloa itxi behar duten hatzek non egon behar duten, baina, gainontzekoak non ipini behar dira? Haur askok ezer egiten ez duten hatz horiek bildu eta txirularen atzera eramaten dituzte. Baina gero, zulo bat tapatzera joan behar dutenean gehiago kostatzen zaie eta zailtasunez, askotan berandu iristen dira. Gure gomendioa, hatz bakoitza, zentzuzko distantzia batetara noski, berari dagokion zuloaren gainean kokatzea da.

15. Irakurketa erritmiko

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 47. or., 7. 3. fitxa

Erritmoa errespetatuz eta jarraituz irakurri beharko ditugu orrialde honetako zortzi esaldi hauek. Perkusiozko musika tresna bat erabili daiteke irakurtzerako garaian erritmoa hobeki markatzeko.

Azken lau eskemetan, erritmoa aztertu ondoren, testua osatu beharko da kolpe bakoitzari silaba bat egoki ipiniz.

16. Txirula ikasten

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 48. or., 7. 4. fitxa/CDa, jarduerak

Hona Si eta La notez osaturiko abesti bat. Aipaturiko lau urratsak beteko ditugu. Erritmoa, txaloak joz, kriskitinak eginaz, belauak kolpatuz edo iruditzen zaigun bezala markatuko dugu. Solfeatu egingo dugu jarraian. Ondoren letrari erreparatuz, kantatu egingo dugu, eta azkenik, txirularen txanda izango da.

Komenigarria da Si eta La notak erabiliz, beste erritmo bat duten kanta sinpleak asmatzea eta solfeatu eta txirulaz jotzea.

17. Musika-sortzaile

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 49. or., 7. 5. fitxa

Abesti bat asmatzea da fitxa honen helburua, haur bakoitzak berea.

Zein zelula erabili daitezken argitu ondoren erritmo bat sortzeari ekingo diogu.

Melodia sortu ahal izateko baldintzatuta gaudela ohartarazi, Si eta La notez osaturiko melodia izango baita.

Azken lana, berriz ere erritmoa oso kontutan hartuta, letra asmatzea izango da. Lau konpasetakoa izanik ezin gauza asko kontatu, baina tira, nonbaitetik hasi behar.

18. Txirulak zortzi zulo ditu

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 50. or., 7. 6. fitxa/CDa, jarduerak

Si eta La notak sortzeko zer egin behar den ikasi dugu. Apurka-apurka soinu hobea ateratzea lortuko dugu, ez dugu presa gehiegirik izan behar. Horregatik hirugarren nota honekin hasi aurretik lan-koadernoan agertzen diren baino kanta gehiago lantzea komeni da, errepika ariketak ere entrenamendu egokia dira. Haurrek banan-banan jo dezaten ere eskatuko diegu.

Lan horiek guztiak burutu ondoren prest egongo gara Sol notarekin hasteko. Aurtengoz ikusiko dugun azkena da. La-ren azpian kokatua dagoenez beste zulo bat itxi beharko dugu. Baina oraingoan apur bat gehiago kostatuko zaigu, martxan jarri behar dugun hatza nagia baita.

Posizioa ikasi ondoren, zuloak ongi itxita dauden begiratu eta kito. Ez du lan handia suposatuko. Arazoak gero etorriko dira, Sol-etik La-ra aldatu beharko dugunean. Orduan bai, orduan pazientzia handiarekin eta presa gehiegirik gabe egin beharko dugu lan.

Orrialde honetan agertzen den abestiak txirula praktikatzeko aukera eskaintzen digu, bertan Si, La eta Sol notak jo beharko baititugu.

19. Ea zenbat dakizun!

Lan egiteko era: Bakarka/binaka

Materiala: Musikako lan-koadernoak, 51. or., 7. 7. fitxa

Sei galdera hauetatik, bosten erantzunak goiko pentagraman daude. Bilatzen jakin behar eta aurkitzen asmatu, noski.

20. Erein, erein, dantza

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, jarduerak

*Erein, erein,
lurrak, lurrak on egin.
Erein, erein,
arrosa eta krabelin.
Erein, erein,
lurrak, lurrak on egin.
Erein, erein,
arrosa eta krabelin.
Segarekin baratzean,
lagunekin enparantzan.
Kantuan eta dantzan
gazte guztiok gabiltza.
Segarekin baratzean,
lagunekin enparantzan.
Kantuan eta dantzan
gazte guztiok gabiltza.*

- Melodiaren azpiegitura tonala: Re M

- Erritmoaren urratsetan:

Dantzaren kodea.

Erritmo eskema.



Jarrera: zortziko taldeak osatuz eta zutik korroan bildurik.

Mugimenduak:

A ALDIAN

1, 3, 5, 7

Erein, erein lau pausalditan korrotik erdialdera joanez.

2, 4, 6, 8

Lurrak, lurrak on egin: gerriak makurtuz korroan jira osoa emanez.

1, 3, 5, 7


Erein, erein: lau pausalditan erdialdetik korrora itzuliz.

2, 4, 6, 8

Arrosa eta krabelin: gerriak makurtuz, korroan jira osoa emanez.

B ALDIAN

Talde guztia eskuin aldera mugituz eta ezkerretik itzuliz.



Gorputz espresioa:

A ALDIAN:



Taldeko 1, 3, 5, 7 ereintzaren keinuak adieraziz.

Taldeko 2, 4, 6, 8 segalarien keinuak eginez.



B ALDIAN:

Airoski ibiliz eta txaloak eta kraskinolak egoki aldizkatuz.



21. Horra udaberria, errepika motako abestia

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: CDa, jarduerak

Mitxoletak zelaian.

Kuku-prakak mendian.

Basaranak sasian.

Arrosak atarian.

Sagarrak sagastian.

Bildu ditut aspaldian.

Den-denak amatxo maite,

zuretzat alaitu zaitez!

Dantza, dantza, Maria

arin-arin berria,

kanta-kanta, Maria

horra udaberria!

• KANTUA

Oihartzun-ka eta errepikan buruz ikasi arte.


Bakarka eta taldeka.

Noten iraupena zainduz eta ahotsak nahasian, polifonia mailako sentierak bideratu ditzakegu.

Mi txo - le tak ze la - ian,
 bil du di - tut as - pal di - an. Den - de -
 nak, a - ma txo maite, zu re - txat a - lai tu zai te! Dantza
 dan - tza, Ma - ri a a rin a rin be rri - a. Kanta
 kan - ta, Ma - ri a Horra u da - be rri - a!

HORRA UDABERRIA!

Mitxoletak zelaian.
 Kukuprakak mendian,
 basakanak sasian,
 larrosak atarian,
 sagarrak sagastian,
 bildu ditut aspaldian.
 Den-denak, amatxo maite
 zuretzat, alaitu zaitte!
 Dantza, dantza, Maria
 arin arin berria.
 Kanta kanta, Maria
 Horra udaberria!



22. Txisteak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 91. or.

Ikasleek, bakarka, hiru txisteak irakurriko dituzte, gozatzeko.

Gero, talde txikitan, txisteen inguruko hausnarketatxo bat egin dezakegu. Txiste bakoitzaren ironia zein den azpimarratzen saiatuko gara, zerk eman dion txisteari grazia edo umore puntua, alegia.

Bestetik, puntuazio zeinuei (elkarrizketa adierzten duen gidoi, galdera-markak, harridura-markak...) begiratzeko parada ona dugu hau.

Bigarren txistea adibidez, taldean puntuazio zeinuen ikuspuntutik eta ortografiaren ikuspuntutik (“h”-a duten hitzak zeintzuk diren, “z” dutenak...) behatu, irakurri eta, ondoren, koadernoan diktaketa labur bat egin dezakegu.

Bukatzeko, nola ez “txisteen unea” saioari tartea egingo diogu elkarri txistek intonazio eta keinu egokiak erabiliz kontatuz.

23. Lehenengo irteera antolatzen

Lan egiteko era: Talde handian

Lehenengo ibilaldia egiteko ordua heltzean dago, eta, komenigarria litzateke talde handian puntu batzuk argitzea:

- Egin beharreko lana argitu: Lehenengo ibilaldi honetan, datu orokorrak biltzera joango gara eta baita aurkitutako elementuen izenak zerrendatzera ere. Horregatik komenigarria litzateke, joan aurretik, 12 eta 13. orrialdeak begiratzea.

Luzera neurtzeko aukera ezberdinen artean, guk 100/200/300m-ko soka batekin egitea proposatzen dizuegu. Ikasle bik muturretatik heldu eta tenkatuta dagoenean, hirugarren batek apuntatu dezala neurria, bukatzean batura egin eta ibilbide guztiaren luzera kalkulatzeko.

- Arduren banaketa egin: idazkariak (elementuen izenak idatziko dituztenak), denbora neurtuko dutenak, argazkiak aterako dituztenak (irakaslea izan daiteke)...

- Materialen prestaketa: argazki kamara, prismetikoak, lupak, erlojua, 300m-ko soka, potetxoak (tapa zulatuta), koadernotxoa edo folioren bat, arkatza...

- Mendira joateko gomendioak errepasatu.

-Eraman beharreko materiala: arropa eroso, motxila, janaria (egun osoko irteera bada)...

- Irteera eguna eta ordua adostu.

24. Gurasoentzako eskutitza

Lan egiteko era: Talde handian

Landuko dugunaren berri gurasoei emateko, honelako eskutitza bidali diezaiekegu.

Guraso agurgarriak:

Hemen gara berriro ere gure eginbeharren berri emateko asmotan. Gogoratzen al duzue iaz garai honetan zertan eta non ibili ginen? Bai, ezta? Ba, oraingoan ere ikastetxetik atera eta mendirako bidea hartuko dugu, naturaz gozatu eta ikertuz, honengandik ikasi dezakeguna geureganatuz. Zuek ere gustura etorriko zinatekete, ezta? Laster izango duzue bada, horretarako aukera!

Hau da laburki gure plana: ... (Ikastetxe bakoitzak jarri hemen egingo duen ibilbidearen izena) ibilbidearen azterketa egitea. Mapa egin ibilbidea markatuz, datu orokorrak bildu eta aurkitzen ditugun elementuen (eraikinak, landareak, animaliak...) azterketa egin.

Zer uste zenuten bada, lan egitera ere bagoaz, jai giroan beti ere, pozik eta alai!

Beraz, hilabete honetan, irteera bat baino gehiago egin beharko dugu, batzutan mendian ibiliko gara ikerketa egiten, besteetan berriz, ikastolan, bildutako informazioa antolatzen eta garatzen. Irteerak, ez dakigu zehatz-mehatz zein egunetan izango diren, eguraldiaren arabera han hor hemen ibiliko baikara, horregatik eskatu nahi genizueke,

hilabete honetan zuen seme-alabak arropa eroso eta zapatilekin etor daitezela ikastetxera.

Besterik gabe, zuen poza geurearenaren bestekoa izango delakoan, laster arte esan behar dizuegu, lanean hasteko ordua baitugu.

Eta zuek lasai, ez ernegatu, zuen txanda ere laster helduko da eta!

Ondo izan eta laster arte.

Urdintxo eta Pox

Kaixo familia:

¿Qué tal estáis? Nosotros estupendamente y con intención de estar aún mucho mejor.

¿Recordáis donde estuvimos el año pasado por estas fechas? Pues esta vez también vamos a salir de la ikastola, pero no al parque, sino rumbo al monte, con idea de gozar de la naturaleza en esta época y aprender todo aquello que ésta nos ofrece. En resumen, este es nuestro plan: analizar el recorrido de...

La idea, es hacer un mapa del recorrido marcando y analizando todos los elementos (edificaciones, fauna, flora...) que vayamos encontrando a lo largo del camino.

Para realizar este trabajo necesitaremos hacer más de una salida al campo.

Por lo tanto, habrá días en los que andaremos por el monte y otros en los que estaremos en la ikastola ordenando y desarrollando la información recogida. No sabemos con exactitud qué días saldremos y cuándo nos quedaremos, por eso os pedimos que durante este mes, vuestros hij@s vengan con ropa y calzado cómodo.

Bueno, esperando que nuestro plan os haga tan felices como a nosotros, solo nos queda decir adiós y hasta pronto.

No os desesperéis, pues pronto llegará vuestra oportunidad para hacer una excursión . Hasta entonces procurad ser felices.

Urdintxo eta Pox.

25. Ibilbideko elementuen sailkapena

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 12 eta 13. or.

Hasteko, ibilaldiari buruzko elkarrizketa sortuko dugu, esperientzia kritikatu eta baloratuz. Ondoren, talde handian, ibilbidean bildutako informazioa erkatu eta arbelean idatziko dugu sailkapenaren arabera. Gero, ikasle bakoitzak arbelekoa bere koadernoan idatziko du. 12. orrialdean dugu gure proiektuaren lehenengo orrialdea (koadernotxoaren kasuan) edo panela (proiektua panelen bidez seinaleztatzea bada) izango dena, ibilbidearen datu orokorrak biltzen dituen. Beraz, garbira pasatu dezakezue orrialde hau, ordenadorez, zein fotokopiatu eta eskuz osatuz, ibilbidearen elementuak aztertu ahala proiektua prestatzeko. Panelak egitea pentsatzen duzuenok, proposamen bezala luzatzen dizuegu, udaletxean proiektua aurkeztea eta honekin batera, panelak egiteko diruaren eskaera egitea. Beste aukera bat litzateke, ikastetxeak berak hartzea gastu hau bere gain, eta merkeago ateratzeko, agian kurtso nagusietako ikasleei teknologia klasean egiteko eskatzea. Zuen gelako gurasoren bat arotza balitz ere aukera proposa litzateke.

26. Abestia: Ikusten duzu goizean

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: CDa

Jean Baptiste Elizanbururen “Ikusten duzu goizean” abestia entzungo dugu talde handian, betiko pausuak jarraituz.

- Entzun eta gozatu.
- Entzun eta letra eta mezuaz jabetu, gero honen inguruko elkarrizketa bultzatuz.
 - *Zergatik azaltzen da hain pozik abestiko pertsonaia?*
 - *Zuek hain zoriontsuak izango zinatekete egoera berean? Zergatik?*
- Bukatzeko, letra idatzi (kopia edo diktaketaren bidez), irudia egin, eta abestia irakurriz, buruz ikasten saiatuko gara, gero, denok batera abesteko.

27. Bizigabeak: eraikinak aztertzen

Lan egiteko era: Talde handian/Binaka

Materiala: Ikaslearen liburua, 14 eta 15. or.

Orain, eraikinak aztertuko ditugu.

Aztergaia kokatzeko, 14. orrialdearen goiko aldean dagoen eskematxoari erreparatuko diogu. Ondoren, zubia eta baserria eraikinen fitxak irakurri, behatu, aztertu eta hauen ezaugarriak buruz eztabaida sortuko dugu. Gero, liburuaren 13. orrialdean zerrendatutako eraikinak arbelean idatziz, ahoz, hauei buruzko ezaugarriak aipatzen saiatuko gara. Jarraian ikasleek binaka, eraikin bi aukeratuko dituzte, hurrengo irteeran horri buruzko datu guztiak biltzeko (izena, ezaugarriak, historia etab.). Hemen dituzue lagungarri izango dituzuen ideia batzuk:

- *Izena*: eraikinarena, auzokoa edo tokiarena
- *Ezaugarriak*: itxura, neurria, materiala (harrizkoa, egurrezkoa, burdinazkoa), erabilpena, kolorea, bizidunik ba al dagoen bertan, hauen ezaugarriak (nortzuk, ezaugarriak, zer egiten duten bertan)
- *Historia, istorio edo bitxikeriaren bat*: noizkoa den, zertarako erabiltzen den, nork eraiki zuen, jairen bat ospatzen den...
- *Oharrak*: eraikin honen inguruko istorio mitologiko edo bitxikeriaren bat ezagutzen den...

Informazioa eskuratzeko proposamena, auzo horretako baserritarrei galdetzea litzateke, honela datuak biltzeaz gain, harremanak garatu eta hizkuntza eta ohitura zaharrak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute ikasleek. Ahal dela, baserritarren batekin eguna adostu, taldearekin batera irteera egin dezan eta nolabait bera izan dadin egun horretan gidari eta irakasle, oso aberasgarri ikusten dugu.

28. Bigarren irteera antolatzen

Lan egiteko era: Talde handian

Lehenengo irteeran egin bezala, orain ere komenigarria da puntu batzuk gogora ekartzea eta eginbeharrak argitzea.

- Aurreko irteeran zerbait argitu edo osatu barik gelditu bada, orain aukera daukazue, berriro behatzeko eta, beharrezkoa balego, zuzentzeko.

- Egitasmoa argitu: bikoteka, aukeratutako eraikinari buruzko datuak bildu beharko dituzte.
- Materialen prestaketa: unitatea, koaderno edo folioren bat eta arkatza, grabadora, nahi izanez gero.
- Mendira joateko gomendioak errepasatu.
- Eraman beharreko materiala : arropa eroso, motxila, janaria (egun osoko irteera bada)...
- Irteera eguna eta ordua adostu.

29. Eraikinak marrazten

Lan egiteko era: Talde handian

Zuzeneko behaketa erabiliko dugu oraingoan marrazkiak egiteko orduan. Kanpoan lan egin behar dugunez, haur bakoitzak zerbait zurruna (okume xafla, karpeta...) eramatea komeni da papera haren gainean jartzeko. Hainbat material erabil badaitezke ere, erosotasunari begira, arkatza, zorrozkailea eta borragomarekin hastea izan daiteke egokiena. Marrazkiei kolorea, zuzeneko behaketan bertan edota (behatu ondoren, buruan jasota) gelan eman diezaiekegu (argizarian, tenperaz, koloretako arkatzez...). Saiatu behaketa honetan, elementuen arteko proportzioaz hitz egiten, argia eta itzala behatzen, testura edo ehundura desberdinak (harria, zuloak, egurra...) atzematen eta arkatzaren bidez adierazten saia daitela.

30. Eraikinen fitxak osatzen

Lan egiteko era: Binaka/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 15. or.

Bigarren ibilaldi honen ostean, ikasleek binaka bildu duten eraikinen inguruko informazioarekin, 15. orrialdean agertzen den fitxa osatu beharko dute, testua idatziz eta irudia marraztu eta koloreztatuz (zuzeneko behaketa/marrazketan hartutako apunteak eta erreferentziak aplikatzeko aukera ona dute honakoa). Gogoratu, fitxa hauek proiekturako prestatzen joan zaitezketela.

31. Abestiak: Ni bizi naiz baserrian eta Lastozko zubie

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: CDa

14. orrialdean adibide gisa agertzen zaizkigun bi fitxak aitzakiatzat harturik, eraikin biri erreferentzia egiten dieten tradiziozko bi abesti “Ni bizi naiz baserrian” eta “Lastozko zubie” entzungo ditugu talde handian, betiko pausuak jarraituz. Abesti guztien letrak CDan dituzue.

32. Naturak sortutakoak?...Kobazuloak!

Lan egiteko era: Talde handian

Bizigabeei dagokion atal honetan, eraikinak aztertzen ibili gara. Ez dakigu zuen ibilbidean naturak berak sortutako elementuren bat aurkitu duzuen, hala bada atal honetan leku egin diezaiokezue eta honen azterketa ere landu. Bestela bada, haitzuloen inguruko aipamen txiki bat egitea proposatzen dizuegu.

- *Ea nork esaten didan, gure ibilbidean aurkitu ditugun eraikinak nork eginak diren? Gizakiak.*
- *Baina badakizue, naturan badira elementu batzuk, modu naturalean sortu direnak, naturak berak sortu dituenak, nork esango lidake honelako elementuren baten izena? Aipatu, zerrendatu, hitz egin bakoitzaren ezaugarriez.*
- *Zer dira haizuloak? Definitzen saiatu.*
- *Zertarako erabiltzen dira? Babeslekua ziren eta dira.*
- *Baten bat bizi al da bertan?*
- *Gaur egun agian ez, baina noizbait norbaitzuk erabiliko zuten, nortzuk eta zertarako? Lehen gizakia ekarri dezakegu gogora.*
- *Eta gaur egun norbaitek erabiltzen al ditu zerbaitetarako? Aterpetxe modura, animalien babesleku...*
- *Haizuloen inguruko istorio mitologiko asko ezagutzen dira, norbaitek ezagutzen al du baten bat?*
- ...

33. Anbotoko Mari

Lan egiteko era: Talde txikian/Talde handian/Talde txikian

Materiala: Irakurgaiak 2, 92 eta 93. or.

Oraingoan ere, talde irakurketa egingo dugu, ikaskuntza kooperatiboa praktikan jarritz. Testu motak ulertzeko erabiltzen diren estrategiak ere ezberdinak izaten direnez, oraingoan rol hauek praktikan jarriko ditugu; irakurlea, ikertzailea, kazetaria, asmatzaile eta jakintsua. Bosteko taldeak osatuko ditugu beraz, taldeko irakurketa egiteko.

- *Irakurlea* (dekodifikazioa): taldekide bakoitzak bere liburuan irakurketa jarraituko badu ere, irakurle ofizial honek egingo du ozeneko irakurketa.
- *Ikertzailea* (argibideak): ulertzen ez duen hitzen bat entzuten duen bakoitzean, irakurketa eten egingo du eta testuingurua kontuan izanik, hitz horrek zer esan nahi izango duen argitzen saiatuko da. Ez bada gai erantzuna asmatzeko, beste taldekide bat saiatu daiteke. Denen artean ere, hitzen bat argitzeko gai ez badira, ikertzaileak irakaslearen laguntzaz, hiztegian bilatutako definizioa taldekideei irakurriko die.
- *Kazetaria* (laburpena edo sintesia): irakurketa bukatzean, irakurritakoaren laburpena egin beharko du.
- *Asmatzailea*: testuaren haria jarraituz nola bukatuko den asmatu edo iragarri beharko du bukaerara heldu orduko.
- *Jakintsua*: irakurritakoa, garrantzitsua den beste informazio batekin erlazionatuko du, testua errazago ulertzeko asmoz.

Irakurle bakarrarentzat bi orriak irakurtzea astuna gerta daitekeela uste baduzue, irakurlearen papera beste batekin trukatu bigarren orria hasterakoan.

Irakurketa burutzean, esperientziari buruz mintzatuko gara: rolak, zailtasunak, irakurketa mota honen alde onak eta txarrak. Eta baita ipuina ulertzea lortu duten, esperientziaren helburu nagusia izan dena, alegia.

Honen ostean, mitologiak mintzatuko gara, zer den, jatorria zein den, erabilpena, balioa, kondaira sinbolikoa, egiazko gertaeretan oinarritzen den alegiazko kontakizuna, tradiziozko pentsamendu, ikuspegi eta sinesteak islatzen dituen, kultura, sinesmen eta jakintza transmisioa...

Gero hizkuntza funtzio batzuk aktibatuko ditugu, iragarpena eta irudikapena, hain zuzen ere. Horretarako lehengo taldeetan, jolas bat proposatuko diegu ikasleei.

-Anbotoko Mariren istorio honek bere bizitzako une baten berri ematen digu, ez dakigu aurretik nolako bizimodua izan duen ezta ondoren zer gertatu den ere. Zuek talde txikitan, Mari jaio zenetik ipuineko momentu honetara arte gertatutakoa asmatu beharko duzue, batzuk, eta beste batzuk, irakurri dugun ipuinaren ostekoa.

Ondoren lau talde baditugu, bi ipuin osatu, eta ahoz kontatu ahal izango ditugu gela aurrean.

34. Ipuin erraldoiak

Lan egiteko era: Talde txikian

Gure ipuinak era egokian bildu eta adierazteko, irudiz hornitutako ipuin erraldoiak egingo ditugu denon artean.

Plastika arloan material ezberdinak erabiliz (argizariak, tenperak, errotulagailuak...) ipuineko orrialde bakoitzari dagokion irudia egingo genuke kartulina handian, ondoren, azala egin, izenburua idatzi eta artilearekin orrialde guztiak lotuko genituzke. Ipuina bukatuta dagoenean, laguntzeko jarriko dugun musika aukeratuko dugu eta gelaz-gela joan gaitezke, ipuin kontalari gisa, gure ipuina kontatzera.

35. Txotxongilo-emanaldia

Lan egiteko era: Talde txikian

Aurreko proposamena (ipuin erraldoia) egin beharrean, ipuin hau edo beste edozein ipuin mitologiko txotxongiloekin ere antzeztu dezakegu. Ipuina aldatzea pentsatzen baduzue, Enkarni Genuaren “Erreka Mari” izan daiteke egokia. Pertsonaiekin siluetak egin ditzakezue, hau da, kartulina batean margotu, moztu eta makila batekin heldu. Narratzaileak ipuina kontatuko du eta “txotxongilolari” bakoitzak bere pertsonaiek esandakoak esango ditu, behar den doinua eta intonazioa emanez, pertsonaiak mugitzen dituzten bitartean.

36. Ipuinak idazten...

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka

Materiala: 4. lan-koaderno, 24, 25 eta 26. or.

Aurreko jardueretan ipuin bat aurretik eta atzetik osatu dute haurrek talde txikitan. Oraingoan, talde handian planifikazio urratsak burutu ondoren, bakarkako edo binakako ekoizpena landuko dugu.

Jarduera hau orain egin beharrean, une hau zeregina aurkezteko eta unitatearen garapenean zehar aztertzen ditugunak, ideiak sortzeko kontuan har ditzatela esateko erabil dezakegu. Ipuina beranduago ere ekoitzi dezakete haurrek, animaliei dagokien atala landu ostean, mendiko beste elementuak eta sentsazioak aztertu ostean... Animaliek, paisaiak, isiltasunak... ideiak sortzeko aitzakiak ematen baitizkigute (ikus irudimena lantzen 54. jarduera, “bestiariora”).

Planifikatzen ari garen honetan, argi utziko dugu zer egingo dugun eta zein helbururekin. Ondoren, edo egun batzuk barru, denon artean ipuina osatzeko behar ditugun ideiak botako ditugu. Gogoratu binomioaren ideia aprobetxatu dezakezuela. Ideia guztien artean, bat aukeratu eta hura jorratzen hasiko gara, eta honen inguruan botatako proposamenak eskema moduan arbelean idazten joango gara. Kontraesanak eta inkoherentziak eztabaidan jarri. Ondoren, ikasleek binaka edo banaka, folio batean euren ideiak garatzeari ekingo diote. Horretarako behar dituzten hitzak eta hizkuntza formak aukeratuz eta ipuinen txokotik behar dituzten baliabideak hartuz eta erabiliz. Behin lan hau eginda, ipuinaren zirriborroa irakasleari erakutsi eta honen laguntzaz irakasleak egoki ikusten dituen zuzenketak egitera bultzatuko du ikaslea bakoitza. Gero ikasle bakoitzak ipuina letra ulergarri eta garbiarekin bere lan-koadernoan kopiatuko du.

Gogoratu ipuina CD-ROMean editatzeko aukera ere baduzuela, asmoa hori bada, komenigarria litzateke, gaia zein den irakurri ondoren, CD-ROMeko hondoak eta pertsonaiak begiratzuz ideiak hartzea eta hauen inguruan ipuina ekoiztea.

37. Bizidunak: Landareak; Zuhaitzak

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua 16 eta 17. or.

Aukera izanez gero, landareak atala lantzen hasi aurretik, beste irteera bat egitea egokia litzateke.

Aztergaia kokatzeko, 16. orrialdearen goiko aldean dagoen eskematxoari erreparatuko diogu. Sailkapenean zuhaitzen tokia zein den ikusi ondoren, haritzaren fitxa behatuko dugu.

Fitxari dagokionez, izen arrunta eta zientifikoa bereizten dira. Ezaugarrietan, haritzaren deskribapena egiten da, zuhaitzaren neurri eta forma adieraziz, eta enbor, hosto, lore eta fruituaren xehetasunak aipatuz. Bestelako aipamenak egiteko, oharrak izeneko puntua jarri dugu.

Honen ostean, 13. orrialdera joko dugu eta bertan apuntatu genituen landareen izenen artean, zuhaitz eta zuhaixka/belar arteko bereizketa egingo dugu eta arbelean idatziko dugu sailkapen hori. Berrito ere ikasleek bikoteka zuhaitz bat aukeratzeko dute, eta ikastolako liburutegitik ekarritako liburuak aztertuz, 17. orrialdean agertzen den fitxa osatu beharko dute. Eraikinekin egin genuen bezala, gogoratu, fitxa hauek proiekturako prestatzen joan zaitezketela.

38. Bertsoa: Zuhaitzak zaindu ditzagun

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: 4. lan-koaderno, 27. or.

Mikel Mendizabalen “Zuhaitzak zaindu ditzagun” bertsoa osorik agertzen bada ere, esaldiak zeharo desordenaturik agertzen zaizkigu. Zortzi esaldi hauek, modu zuzenean ondo lotzen baldin badira, bertsoa osatuko dugu. Jarduera hau talde handian eta irakaslearen laguntzaz egin beharrekotzat jotzen dugu. Hasteko, esaldiak irakurri eta bakoitzaren esanahia argituko dugu. Gero irakasleak, pista botako ditu.

-Oraingoan, bertso hau osatzeko, igarkizuna balitz bezala nik pista batzuk emango dizkizuet eta denon artean arbelean bertsoa osotzen joango gara.

- *Puntu bakoitzaren bukaeran errima duen hitzari begiratu gero, oinari alegia, nahiz eta ordena jakin ez, 2, 4, 6 eta 8. esaldiak zeintzuk diren asmatu dezakegu, esaldiak bi zutabetan jarriz ariketa asko erraztuko zaigu.*
- *Bertsoaren lehenengo esaldia zein den jakiteko, zer egin dezakegu? Nola hasten gara idazten? Letraz larriz. Eta azken esaldia zein den jakiteko zeri begiratu diogu? Puntuari. Beraz, lehenengoa esaldia eta azkena idatziko ditugu.*
- *Bigarren esaldia beste zutabetik hartu beharko dugu, aurreko esaldiak etxea, parkea aipatzen ditu, zer dira hauek? Lekuak edo tokiak. Beraz zein izango da hemen jarri beharrekoen artean, koherentzia mantentzen duen esaldia?*
- *Orain zutabe bakoitzean hiruna esaldi ditugu, saia gaitezen bikoteka jartzen, bertsoaren puntuak osatzeko.*
- *Hurrengo urratsa esaldiak ordenatuz bertsoa osatzea litzateke.*

Bertsoa osaturik dagoenean, ikasle bakoitzak bere Lan-koadernoan idatziko du eta ondoren, denok batera, abestu egingo dugu.

Doinuak: Loreak udan ihintza bezela (Benito Lertxundi), Zeru altuan zegoen Jaunak (Xabier Lete), Txoriak eta txoriburuak (Anje Duhalde), Pello Joxepe...

“Zuhaitzak zaindu ditzagun”

Etxe-aurrean, parkean edo
mendi-inguru librean
ondasuna eta arnas garbia
hazitzen da landarean,
zuhaitzak ondo zaindu ditzagun
gozatuz beren airean
gure bizitza ez dadin sartu
basamortuko bidean.

39. Igarkizunak

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian

Materiala: Irakurgaiak 2, 94. or.

Xabier Etxanizen igarkizun hauek, naturan aurkitu ditzakegun hiru biziduni egiten diete erreferentzia, zuhaitza, ardia eta erlea. Ikasleek banaka igarkizunak irakurri eta erantzuna asmatu egin beharko dute. Ondoren talde txikitan, elkarrizketaren bidez, erantzunak erkatzeaz gain, argudioak elkartrukatu dituzte.

Jardueraren helburua, testuaren ulermena eraiki, informazioa aurre-ezagutzekin lotu eta ahozko adierazpena garatzea litzateke.

Deskribapen txikiak eginez, haurrek beren igarkizunak asma ditzakete eta gelakideei asmatzeko eskatu.

40. Bizidunak: Landareak: Zuhaitzak eta belarrak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka

Materiala: Ikaslearen liburua, 18 eta 19. or.

Aztergaia kokatzeko, 18. orrialdearen goiko aldean dagoen eskematxoari erreparatu diogu eta iaz parkearen azterketan ikusi eta ikasitakoak gogora ekarriko ditugu.

Ondoren ikasleek irakasleak diktatutako zuhaixken eta belarren definizioak idatzi beharko dituzte euren liburuan.

- *Zuhaixka: zurezko landare bizikorra, sei metro baino gutxiagokoa eta lurretik gertu adarkatzen denez zurtoin nagusirik ez duena.*
- *Belarra: organo guztiak bigunak, ez-zurezkoak, dituen landare berdea, gehienetan urterokoa.*

Idatzi dutena ez da ulertzeko oso erraza, beraz, guztion artean hitzen eta definizioen esanahia argitzen saiatuko gara. Hiztegiara jotzea egokia izan daiteke, ordena alfabetikoaz eta hitzen bilatze prozeduraz hitz egin eta horiek aplikatzeko.

Ondoren, ikasleek zuhaixken eta belarren zatiak izendatu beharko dituzte liburuan agertzen den irudian. Gero, berriro ere, zuhaitzak landu genituenean egin genuen sailkapenera joz, ikasleek bikoteka zuhaixka edota belar bi aukeratuko dituzte, eta ikastolako liburutegitik ekarritako liburuak aztertuz, 19. orrialdean agertzen den fitxa osatu beharko dute. Gogoratu, fitxa hauek beste euskarri batean garbira pasa, eta proiekturako erabil ditzakezuela.

41. Letra-zopa

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: 4. lan-koaderno, 28. or.

Bakarka, ikasleek letra-zopa honetan hamar landare hauen izenak aurkitu beharko dituzte: GAZTAINONDOA, URKIA, HARITZA, PAGOA, KAMAMILA, IRATZEA, BITXILOREA, HIRUSTA, SASIA ETA GOROLDIOA.

42. Bizidunak: Animaliak

Lan egiteko era: Talde handian/Binaka/Bakarka/Talde handian/Binaka/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 20 eta 21.or.

Animalien atala lantzen hasi aurretik ere, beste irteera bat egitea ez legoke sobran, aurrekoa agian urruti gelditu daiteke eta.

Beti bezala, aztergaia kokatzeko, 18. orrialdearen goiko aldean dagoen eskematxoari erreparatuko diogu eta iaz parkearen azterketan ikusi eta ikasitakoak gogora ekarriko ditugu.

Orrialde honetan gure ibilbidean aurkitutako animaliak familiak sailkatu behar direnez, jarduerarekin hasi aurretik, komenigarria litzateke gogora ekartzea animalien familia ezberdinak eta bakoitzaren ezaugarriak eta bereiztasunak.

Horretarako, ornodunak diren ugaztunak, hegaztiak, arrainak, narrastiak eta anfibioak ahoz definitzen saiatuko gara. Gero, berdina egingo dugu ornogabeekin.

Ondoren, ibilbidean zehar aurkitutako animalien izenak idatziko dituzte ikasleek sailkapenaren arabera dagozkien familian kokatuz. Gero, orain arte bezala, bikoteka animalia bi aukeratu eta liburutegi zein etxetik ekarritako liburuak erabiliz, hauen fitxak osatu beharko dituzte, izena, familia edo taldea zehaztuz (ornoduna eta hegaztia, ornogabea...), animalien ezaugarriak nabarmenenak aipatuz eta oharretan animalia horren inguruan deigarri iruditzen zaiena aipatuz eta irudia marraztuz ala itsatsiz. Bukatzean, proiekturako fitxak prestatzeari ekin diezaiotegu.

43. Sugea, jolas kooperatiboa

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Bi laguneko taldeak osatuko ditugu. Ikasleak lurrian etzango dira behera begira eta aurrean duten lagunaren orkatilak oratuko dituzte suge bat eratuz. Sugeak tripaz behera eta gora ibiliko dira eta mendiak igoko dituzte. Hasieran sugea zuzen ibiliko da, gero borobilak egingo ditu eta ikasleen trebetasuna handitzen doan heinean, mendiak igo (koltxonetak edo aulki suediarra) tunelak zeharkatu (aulkien ilara luzea egin eta manta batekin tapatuz) etab. egiteko gai izango dira. Garrantzitsua da joko honetan mugimenduaren koordinazioak duen garrantziaz hitz egitea ikasleekin, ohartaraziz, ikasle bakoitza sugearen zati bat bada ere, denek osotasun bat eratzen dutela, sugea alegia. Lehen aldiz jolasten dugunean biko taldeak osatuko ditugu, hurrengo batean, hirukoak, gero lauakoak, etab. Hasieran jarriko ditugun trabak errez gainditzekoak izango dira, gero zailtasuna handitzen joango gara. Traba hauek alegiazko lekuen errepresentazio sinbolikoak izango dira, erreka, mendia...

Oso gustukoa izaten dute ikasleek joko hau, beraz behin baino gehiagotan jokatzea aholkatzen dizuegu. Honez gain, ikasleekin izandako jolas osteko elkarrizketa aukera paregabea izango da jolasaren zailtasunak hobetzeko eta ikasleen trebeziak handitzeko.

44. Kartoizko suge artikulatua

Lan egiteko era: Bakarka

- Egiazko sugeak artikulatuak ez diren arren, horixe da guk jolas kooperatiboan osatu duguna. suge artikulatua. Ba al dakizue zer den artikulatua? Zeri deitzen diogu artikulazio? Zeintzuk dira gure gorputzeko artikulazioak? Animaliek ba al dute artikulaziorik? Zein animaliak? Zeinek ez? Sugeak ez behintzat! Baina fantasiatzko suge artikulatu bat eraiki dezakegu.

Jarduera hau denboraz aurrikusi behar duzue, haur bakoitzak gutxienez komuneko paperaren lauzpabost barruko kartoi zilindriko beharko baititu. Zilindro bakoitza sugearen zati edo segmentu bat izango da. Lehenik, hodiak dekoratzeari ekingo diogu. Horretarako sugeen koloreak, marrak etab. behatu. Ondoren, gure sugea fantasiatzko denez, modulazio, greka, puntu, kolore eta marra desberdinak erabiliaz, hodieta arkatzez aukeratutakoa marraztu eta bukaeran tenperaz koloreztatuko ditugu espazioak. Hodiak barrutik kolore lau batez margotzen baditugu hobeto geratuko dira. Lehortzen denean, kola zuria edo berniza emango diegu distira har dezaten. Bi hodi, bereziak izango dira: burua eta buztana. Hauei forma emateko, hodiari ahoa izango den partean bi triangelu moztu, ertz zuzena puntan jarri. Horretarako arkatzez marraztu hodian eta guraizeaz moztu. Gauza bera egin buztanean, triangelu luzeagoak moztuaz. Buruari aho partean, mihi bifido handi bat itsats diezaiokegu eta apaintzeko nahi dugun guztia, koloretako artilezko ilea, begiak... Bi hodi hauek pixka bat zapaldu daitezke. Guztia lehortzen denean, puntzoiarekin, edo jostorraz lodiarekin, hodi bakoitzari aurrean eta atzean bi zuloak egin zirkunferentziaren diametro birtual baten bi muturretan. Buruari eta buztanari, gorputz aldera izango den zatian bakarrik egin zuloak. Eta alanbrea, artilea edo liztaiarekin, jostorraz lodia erabiliaz, lotu segmentu bakoitza besteekin. Estu samar lotu, piezak elkarri ondo eutsiz. Gure sugea prest izango dugu eta buztanetik helduaz mugitu araziko dugu. *Guk ere itxura hori al genuen jolas kooperatiboa egin dugunean?*

45. Esaerak

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian/Binaka

“Eguzkiak nora, zapiak hara” Gehiengoaren arabera jokatzen dugu gehienetan.
“Goiz gorri, arrats euri” Goizean zerua gorritzka badago, arratsaldean euria izango da.
“Gezurra esan neban/nuen mendian, ni baino lehenago zen herrian” Gezurra bat ezkutatzeko beste mila behar izaten dira. Gezurrak hanka motza du.
“Zuhaitz ona, itzal ona”
“Amuarrainak begi bi, sei eskailuk hamabi” Txikiak elkaturik, handiak baino ahaltsuago dira.
“Zozoak beleari, ipurbeltz” “Astoak mandoari, belarri luze” Norberaren akatsak besteengan errazago ikusten dira.
Talde handian esaera hauek irakurri eta esanahiaren inguruan eztabaidatuko dugu. Esaera hauek testuinguru jakin batean aztertu ostean, beste testuinguru batean orokortzeari ekingo diogu. Orokortze lan horretan, esaera hauek esateko egoera edo testuinguru egokiak bilatzen saiatuko gara. Nahi badugu, hurrek, binaka edo talde txikitan, egoera horiek dramatizatu ditzakete. Ondoren, etxean galdetuz, naturarekin edo gaiaren atalen batekin zerikusia duten esaerak biltzeari ekin diezaiokegu. Esaera zaharren libururen bat gelara eramatea ere oso egokia litzateke..

46. Ipuin literarioa

Lan egiteko era: Talde handian

Irakurgaietan dituzten testuez gain, beharrezko iruditzen zaigu hurrek ipuinak bertsiio literario luze samar batean ere entzutea. Horretarako, gai honetan, Elkarreko Kuku saileko Txilikuren “Horacio eta Jaguarra” ipuina lantzea proposatzen dizuegu. Hasteko, ipuina aztertuko dugu talde handian, azalari behatuz aurretik eta atzetik bertan datorren informazioa zein den identifikatzeko, izenburua irakurri, idazlea eta marrazkilariaren biografiak irakurri, jarraian hizkuntza-funtzio batzuk aktibatuz.

- *Azala: Zer adierazten digu izenburuak? Nortzuk izango dira azalean agertzen diren pertsonaiak? Pertsonaien bizitza eta izaera asmatzeari ekingo diogu, zeri buruzkoa izango den ipuina iragarritz...*

-*Idazlea eta marrazkilariaren biografiak: Argazkia ikusi, izena irakurri eta elkarrizketa sortu eurei buruz irakurritakoaz eta ipuinari buruz emandako pisetz.*

Ondoren, bost kapituluko ipuina dugunez, kapituluka irakurtzeari ekingo diogu. Kapitulu bakoitza egun batean irakurtzea proposatzen dizuegu, honela jakinmina sortzeaz gain, aukera izango dute egun batetik bestera irakurritakoan pentsatzeko. Korru handi baten jarriaz irakasleak kapituluka ipuina irakurriko die ikasleei. Kapitulu bakoitza irakurri orduko, hizkuntza funtzio batzuk aktibatzen saiatuko gara. Kapituluak bukatu bezain laster, gai ezberdinak izan ditzakegu elkarrizketarako hizpide.

- *Urrutik etorritako mutikoa: etorkinak, gelara lagun berri baten etorrera, norberaren oporren osteko lehenengo egunean izandako sentimenduak...*

- *Aitziber: Adiskidetasuna, komunikazioa (hizkuntza ezberdinak), Horacioren eta Aitziberren bizitzeko modua eta baldintzak erkatzea eta baloratzea...*

- *Maisuluis*: Maisu eta andereñoen funtzioa eta jokaera, ikasleen arteko laguntasuna...
- *Jaguarra*: Animaliak, animalien izaera (gaiztoa/zintzoa), sailkatu animaliak izaeraren arabera, animalien baten deskribapena eta irudia ere egin daiteke, irudimena zer den eta zertarako balio duen...
- *Oihan-mina*: herrimina, tristura definitu, lagun mina izatearen ezaugarriak definitzen saiatu...

Horacio eta Jaguarra ipuinaren bukaera irekia dela ikusirik, kapitulu guztiak irakurri eta eztabaida ugari izan ondoren, bukaera posibleak asmatzeari ekin diezaiokegu.

-*Nola uste duzue bukatuko dela ipuina? Ausartuko al da Aitziber?*

-...

47. Abestia: Txoria txori

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: CDa, jarduerak

Joxan Artzeren “Txoria txori” Mikel Laboak abestia landuko dugu talde handian, betiko pausuak jarraituz.

- Entzun eta gozatu.
- Entzun eta letra eta mezuaz jabetu, gero honen inguruko elkarrizketa bultzatuz.
- Bukatzeko, letra idatzi (kopia edo diktaketaren bidez), irudia egin, eta abestia irakurriz, buruz ikasten saiatuko gara, gero, denok batera abesteko.

48. Gurutzegrama

Lan egiteko era: Bakarka/Binaka

Materiala: 4. lan-koaderno, 29. or.

Ikasleek bakarka edo binaka, definizioak irakurri, hausnartu eta erantzuna asmatu beharko dute, animaliei dagozkion gurutzegrama osatuko ahal izateko.

Erantzunak: 1. txakurra. 2. inurria. 3. kukua. 4. katagorria. 5. marraskiloa. 6. amuarraina. 7. tximeleta. 8. pertsonak.

Definizioekin ari garen honetan, definizioen/deskribapenen bidez animalien izena asmatzera jolastu dezakezue, irakaslea has daiteke eta asmatzen duenak jarraitu.

49. Armiamak izango bagina, mendira nola joango ginateke?

Lan egiteko era: Talde handian

Joku hau egingo dugu gorputz adierazpena lantzeko.

Galdera hori egin ondoren denok armiamak izango bagina bezala hasiko gara mendira joaten.

- *Armiamak izango bagina... mendira nola joango ginateke?*
- *Erraldoiak izango bagina...*
- *Txakurrak izango bagina...*
- *Sugeak izango bagina...*
- *Elefanteak izango bagina...*

50. Igel harrokoa

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 95. or.

Hasteko ikasleek banaka irakurgaia ahopeka irakurriko dute. Antzerkia aitzakia hartuaz harrotasunari buruzko eztabaida sortuko dugu.

-Zer esan nahi du harroko hitzak? Definitzen saiatuko gara.

-Zuek jokabide hori hartu al duzue noizbait? Zergatik? Zein helbururekin?

-Gustatzen al zaizue harroak diren pertsonak? Zergatik?

-Harroa izatearen onurak eta kalteak aipatuko ditugu eta baloratu ere.

Gero talde txikitan antolatuko gara eta antzerkian agertzen diren paperak banatuko ditugu, eta talde irakurketa egingo dugu.

Bukatzeke ikasleek ipuina antzezteko aukera izango dute, nahi izanez gero, testua buruz ikasita edo euren hitzak erabiliaz.

51. ...eta zapaburuak apo bihurtzen dira!

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian

Materiala: Irakurgaiak 2, 96 eta 97. or.

Zenbait animalia-aren garapenean, metamorfosia izeneko itxuraldaketa izaten da, alegia, enbrioi eta heldutasun faseen artean, formaren eta egituraren aldaketa nabarmena. Irakurgaietan igelaren ugalketa prozesua eta zapaburuaren metamorfosia adierazten digun azalpen testua dugu. Hasteko, ikasleei gai honi buruz dakitena galdetuko diegu, seguru gaude informazio asko izango dutela, gai erakargarria suertatzen baitzaie. Ondoren, testua bakarka irakurtzeko tartetxo bat emango diegu. Gero, talde txikitan, irakurketa-kooperatiboa praktikan jarriko dugu, hauek dira landuko ditugun rolak: irakurlea (dekodifikazioa), ikertzailea (hitz ezezagunei buruzko argibideak), asmatzailea (haria jarraituz, bukaera asmatu), jakintsua (irakurketa beste informazio batekin lotu) eta kazetariarena (laburpena edo sintesia).

Irakurketa estrategiak landu ostean, ulermena lortu dugun ziurtatuko dugu. Metamorfosi hitzaren jatorria eta esanahia lantzea ere ez ahaztu.

52. Zapaburuei begira

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: 4. lan-koadernoan, 30 eta 31. or.

Sasoi honetan gure erreka inguruko putzuak zapaburuz beteta izaten dira.

Zapaburuei buruzko azalpen testuan irakurritakoa egiaztatzeke, putzu batean aurkitutako arrautza edo zapaburuak harrapatu, gelara ekarri, urez beteriko pote batean sartu, eta aldaketa nabarmenak ematen direnean, ikusitakoa ikasle bakoitzak bere lan-koadernoan idatzi eta irudikatu/marraztu beharko du.

Gogoratu zapaburuak/apotxoak egun batzuk gelan izan ondoren aurkitutako tokira eramane behar dituzuela, euren habitatetik kanpo luzaroan edukitzea ez baitzaie komeni.

53. Olerkiak

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 22. or.

Joxean Ormazabalaren hiru olerki ditugu jarduera honetan. Ikasleei bakarka eta isilean irakurtzeko tartetxo bat emango diegu, olerki hauez goza dezaten. Egoki ikusiz gero, memoria lantzeko, ikasle bakoitzak bat aukeratu dezake, buruz ikasi eta gelaren aurrean errezitatu. Erritmo handiko olerkiak direnez, irakurri edota buruz errezitatzerakoan, erritmoa markatzen saia daitezela, era horretan olerkiek izaten duten erritmoaz jabe daitezen poliki-poliki.

54. Animaliak nahastuz irudimena pizten: “bestiariora”

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka

Irudimena pizteko aztertu ditugun animaliak nahas ditzakegu. Eman dezagun zakurra eta sugea aipatu ditugula. Jolasa, bi animalia horiekin bat osatzea da. Esate baterako zakurraren burua eta sugearen gorputza duena. Orri batean marrazki xeble hori egin eta animalia berezi horren izena asmatu. Adibidez:

- Sugezakur
- Txakursuge
- Sugeguau
- Txissssssguau
- ...

Marrazki guztiekin erakusketa xeble bat egin dezakegu. Eta animalia horien mugimenduak asmatzen baditugu?

55. Ipuina: Muturtxo

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Materiala: Irakurgaiak 2, 98, 99, 100 eta 101. or.

Hasteko ipuinaren izenburuaren inguruko solasalditxoa izango dugu.

- Zer adierazten digu izenburuak? Izenburua irakurrita jakin dezakegu zeri buruzkoa izango den? Zergatik?
- Orduan, jorratzen ari garen gaia zein den jakinik, asma dezagun zeri buruzkoa izan daitekeen.

Ikasleek hipotesiak bota ditzatela. Honen ostean, ikasleek ipuina bakarka irakurtzeko tartea izango dute.

56. Ipuina aitzakia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian/Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 23. or.

Hasteko Poxek esandakoa izango dugu eztabaidagai.

Jarraian, ikasleek, ipuina aitzakia den orrialde honetan dauden galderak bakarka irakurri eta isilean hausnartzeko minutu batzuk izango dituzte, ondoren talde handian eztabaidatuko ditugu. Gero marrazkia egingo dute. Marrazkia egin ondoren, ikasleek gelako kideei euren irudia erakutsiko diete. Irakurritako ipuina, bat bera izanik, hau da, oinarri berberetik abiatu badira ere, irudi guztiak ezberdinak direla ohartuko dira. Izan ere, bakoitzak beldurra sentimendua ulertzeko eta errepresentatzeko era ezberdinak ditu, neurri handi batean, bizi izandako esperientziek markaturik.

Honen ostean, ama-untxia eta Muturtxo munstroarekin aurkitzen diren unea marraztu duten aitzakiaz, beldurra sentimenduaren inguruan mintzatuko gara, azpimarratuz, sentimendu hori oso normala dela, nagusi zein gazte, denok izan garela, garela eta izango garela noizbait beldur, egoera jakin batzuen aurrean. Ondoren, denon artean, beldurra sortarazten duten egoerak izendatzen saiatuko gara: egoera berriak, iluntasuna, gaua, bakarrik egoteak, etab., eta hauek gainditzeko soluzioak bilatzen saiatuko gara.

Gai honekin esaera hau landu dezakegu: **“Lagun txarrak dira gezurra eta beldurra”**. Eta esaerari helduz, gezurrari buruzko elkarrizketatxoa izango dugu.

- Zuetariko baten batek esan al du noizbait gezurren bat?

Ikasleek gezurrak noiz eta zein helbururekin esaten dituen kontatuko dute talde handian. **“Gezurra esan nuen mendian, ni baino lehen zen herrian”** esaera lehentxeago landu dugu, gogora ekartzeko une egokia izan daiteke hau.

Beldurraren inguruan, bada entzuteko nahiz irakurtzeko ipuin oso polita eta aproposa, “Beldurtia naiz, eta zer?”, Elkar argitaletxeak “Eta Zer?” sailean liburu formatuan eta Hik Hasik argitaratutako “Kukurruku! Zer diozu?” CDan, audio formatuan dagoena.

Bada ipuin honekin jorratu daitekeen beste gai bat ere, etxeko hezkuntzan, guraso eta seme-alaben artean ematen den etengabeko tira-bira edo soka-tira. Alde batetik, gurasoen bizi-esperientzia eta horrek dakarren jakituria, eta bestetik, gaztetasunaren bat-bateko jokaera inkontzientea. Azken batean, gurasoek ondorengoak babesteko joerak, ekintza baten aurrean dakarren ukazioa, seme-alaben ikuspuntutik zigor bezala ikusten dena. Gelan, bi talde egin daitezke eztabaida sortzeko, talde batekoak gurasoak izango dira eta beste taldekoak seme-alabak. Irakasleak egoera erreal bat planteatuko die ikasleei eta baita talde bakoitzaren zein den adierazi ere. Talde bakoitzak bere jarrera defendatu beharko du argudiatuz.

57. Katu beltza

Lan egiteko era: Bakarka/Talde handian

Materiala: Irakurgaiak 2, 102. or.

Ipuina bakarka irakurtzeko tartea emango diegu ikasleei. Ondoren irakurritakoaz mintzatuko gara, lapurretez. Inorena baimenik gabe hartzeko jokaera aztertuko dugu.

-Zuek egin al duzue horrelakorik noizbait? Zergatik eta zertarako? ...

58. Ingelesa

Lan egiteko era: Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 24. or./Material osagarria

The mountains

Ask the pupils what they have been working on. They should tell you about mountains. Talk about the mountains. (or their excursion if they have been on one)

- *Who has been recently?*
- *Where did you go?*
- *What are the best places to go locally?*

Ask them what they see in the mountains

Ask them what noises they hear in the mountains. Ask everyone to think of a noise. Ask volunteers to make the noises and the rest of the class have to guess. Give an example if they don't get going. E.g. sloop-sloop (sucking in noises) for mud. Other ideas: the wind, a stream, rain...

The conversation will probably move on to animals. When they have talked about a few animals ask them to look in their books at the pictures. They have to match the pictures with the words in the box and write them underneath each picture.

Check on a noise or a gesture / mime for each animal.

Tell the pupils they are going to play a game. They will need one 'Mountains and Rivers Board' and a set of animal cards from the workbook and a dice for each 3/4 players.

Model the game (based on Snakes and Ladders) first. The cards are cut up and placed face down on the table. The pupils throw the dice and the one with the highest score starts. They throw the dice and move the number of squares from the START on the dice. They have to count in English. If they throw a 'six' they can throw again.

If they land on a mountain they go up to the top of the mountain. If they land on a river they have to go to the bottom of the river. If they land on a square with 'A', they have to pick up a card and read it and make the noise and/or mime of the animal for the others to guess. The card is then placed on the bottom of the pile (it may be used again later)

The first person to reach the FINISH is the winner.

Go around helping and encouraging.

59. Olerkia

Lan egiteko era: Bakarka/Talde txikian

Materiala: Irakurgaiak 2, 103. or.

Joxean Ormazabalek hiru olerki hauetan, hiru gai ezberdin jorratzen ditu, maitasuna, adiskidetasuna eta udaberriari agurra.

Ikasleek hiru olerki hauek bakarka irakurri eta gozatu ondoren, taldeetan olerki bakoitzaren gaia zein den azpimarratu beharko dugu. Ondoren, olerkian agertzen diren animalien ezaugarriez mintzatuko gara (familia, tamaina, zer jaten duten...).

60. Zentzumenak zorrozten, sentimenduak gozaten!

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka

Talde handian, beste irteera bat egitea proposatzen dizuegu, baina oraingo honetan natura aztertzeraz joan beharrean, batez ere naturaz eta lagunarteaz gozatzera eta marrazki bat egitera joango gara. Ikasleei argi utzi beharko diegu irteera honen helburua zein den, zentzumenak zorroztea eta sentimenduak (lasaitasuna...) gozatzea. Esperientzia hau momentu jakin batzuetan irakasleak zuzendu edo bultzatu beharko badu ere, ikasleak izango dira protagonistak.

Hasteko, ibilbidean zehar usaindutakoaz, era kontzientean gozatzera bultzatuko ditugu ikasleak. Ibilbideko une eta toki egokiak aukeratuko ditugu, bertan lurtean gora begira etzateko eta eguzkiaren berotasuna minutu batzuek gozatzeko. Begiak itxita izango ditugunez, entzuten dugunaz eta sentitzen dugunaz ere errazago ohartuko gara.

Honekin batera, beste ekintza bat egitea ere proposatzen dizuegu, pentsamenduen-unea martxan jartzea, haurrari bakardadean hausnartzeko tartetxoa eskaintzea, ez da leku berean ezta modu berean zertan aktibatu. Bukaeran, nahi duenak, pentsatu duena besteei konta diezaieke. Pentsamenduen-unea gelako egunerokotasun horretan tartekatuko beharko genukeen ekintza ere bada.

Gero, ibilbideko bista politenak aurkitzen saiatuko gara eta hauetaz gozaten.

61. Bistak marrazten

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 25. or.

Mendi tontoretik edo ibilbidean zehar aukeratutako muino batetik ikusten denaz (herri, mendi...) taldean mintzatu ondoren, ikasleek, euren liburuan ikusitako bista marraztuko dute eta ondoren agertzen diren galderak idatziz erantzungo dituzte. Arkatza eta koloretako arkatzak eraman ditzakegu motxilan horretarako.

62. Entzunaldia

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde txikian

Materiala: CDa, jarduerak

Usandizaga Soraluze, Jose Maria. Konpositore gipuzkoarra (Donostia, 1887-1915). Gaztetan Parisera bidali zuten musika ikasketak sakontzera. Piano ikasketak amaitu zituenean Donostiara itzuli zen. Konpositore eta, piano eta organojolea zen, kontzertu asko ematen zituen, baina gaixotasun batek jota behatz bat moztu zioten eta geroztik ez zuen kontzerturik eman. Konposatzeari ekin eta arrakasta izan zuen. Bere konposizioen artean ezaguna da "Mendi-mendiyan" opera. Estiloz, erromantikoa zen.

Beti bezala, gure konpositoreen txokoa martxan jarriko dugu, konpositorearen biografia irakurriz eta honi buruzko elkarrizketa izanez. Ondoren, entzunaldiari helduko diogu. Bisualizazio bat egitea da proposatzen duguna. Ikasleak girotu egingo ditugu, "orain, musika entzutearekin batera, zuen adineko ikasle batek, talde handian egindako mendi-irteeran sentitutakoa imajinatzen joango zarete" eta musika jarriko dugu segidan. Gero elkarrizketa bultzatuko dugu, hitzen bidez bakoitzak adieraz dezan alegiazko pertsonaia

horrek sentitu duena, seguruenik euren sentimenduak proiektatuko dituzte pertsonaia horrengan. Bukatzeko, sentimenduen hormirudi bat egingo dute. Ikasleei galdera hau planteatuko diegu: *zer sentitzen dut nik mendian nabilenean?* Erantzunak paper txiki batean idatziko dituzte. Gero, talde txikitan antolatuko gara eta koloretako margo, errotulazaila, tenpera nahiz argizariekin, goian galdera eta beherago taldekideen erantzunak jarriz hormirudi politak egingo ditugu. Irteerak egindakoan taldekoeen argazkiak atera baditugu, hormirudi hauetan idatzikoaren osagarri gisa jarriko ditugu.

63. Artelana: Remigio Mendiburu

Lan egiteko era: Talde handian/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 26. or.

Liburuko orri honetan dauzkagun irudiak eta idatziz daukagun informazioa aztertuko ditugu. Biografian ezagutuko ez duten hitz bat behintzat badago. Argitu hiztegiaren bidez “polikromia” hitzaren esanahia.

Ondoren, Korrikako lekukoa aitzakia, Korrika zer den, parte hartzen ote duten... elkarrizketatxoak gara dezakegu.

Remigioren obra gehiago ikusteko aukera interneten baduzue eta baita liburuetan ere. Behatu lanori, egurra nola lantzen eta uztartzen duen, baloratu obra. Eta ereduak eta materialak kontuan hartuz, haurrek talde txikitan egurrezko eskulturak ere egin ditzakete. Mendian, adar idorrek eta zurezko zatiak aurkitzea erraza da. Irteeretan adi-adi joatea besterik ez dugu behar materialak eskuratzeko. Aroztegitan soberakinak ere eska daitezke. Utzi haurren eskuetan (segurtasunaz hitz egin ondoren) mailuak eta iltzeak eta kola, eta egin ditzatela beren konposizioak. “*Izenbururik gabe*” izenburuak balio badezake ere, saia daitezela beren obrei izenburu politak jartzen. Ikusi liburuko obraren izenburua adibidez.

64. Buelako komikia

Kudeaketa mota: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua 4 eta 5 or.

Irakurketari ekin aurretik haurrak girotu eta hizkuntza-funtzio batzuk martxan jarriko ditugu.

- *Izenburua irakurri eta, honen inguruko elkarrizketa izango dugu. Zein da aipatzen den ametsa? Zeintzuk dira falta diren urratsak?*

Hurrei, banaka, komikia irakurtzeko tartetxo bat eman ondoren, komikiaren haria erabiliaz, ekintzak iragartzen, proiektatzen eta imajinatzen saiatuko gara.

- *Zein lekutan daude gure pertsonaiak?*

- *Nor da zubi gainean dagoen emakumea? Nola ezagutuko zuten elkar? Imajinatu eta kontu dezagun zubiko une honetara heldu arte gertatutakoa.*

- *Zer gertatzen zaio Poxi? Zuei gertatu al zaizue noizbait? Eta zer sentitzen duzue holakoetan? Maitasunari buruz hitz egin.*

- *Zer egiten ari da Maddalen?*

- Zer da errotarri bat? Zertarako erabiltzen da? Ikusi al duzue inoiz horrelakorik? Zenbat uste duzue pisatuko duela? Baserritarrek horma kontra izan beharrean beste erabilpenen bat ere eman ahal izango zion? Zuek zertarako erabiliko zenukete?
- Baserriko aitonak topatuko al du Maddalenen etxea? Zergatik?
- Bosgarren binetan belar-metak agertzen dira, zer dira? Zertarako erabiltzen dira?
- Zer sentitzen ari dira gure pertsonaiak etxerako bidean doazenean? Zergatik? Zertan pentsatzen ariko ote da Pox? Eta zer sentituko du? Zuek mendian ibili ondoren zer sentitzen duzue? Gogoz al zoazte etxera? Zergatik?
- ...

Bukatzeko, gaur egungo baserri txikien eta baserritarren egoerari buruzko gaia ere izan dezakezue hizpide.

65. Ibilbide baten mapa aztertzen eta gure mapa osatzen

Lan egiteko era: Binaka/Bakarka/Talde handian

Materiala: Ikaslearen liburua, 28 eta 29.or./Material osagarria

Ikasleek binaka jarrita, liburuan bi orrialdetan zehar agertzen den mapa eta honi dagozkion zeinu konbentzionalen behaketa zehatza eta interpretazioa egin beharko dute, ondoren, bakarka, material osagarrian agertzen den txantiloian euren ibilbideko mapa irudikatu behar baitute. Behin mapa irudikatuta dagoenean, liburuan, dagokion tokian itsatsiko dute. Talde handian mapa eta honi dagozkion zeinu konbentzionalak, arbelean irudikatuko ditugu. Bukatzean, proiekturako erabiliko dugun mapa egiteari ekingo diogu.

66. Proiektua burutzen

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Binaka/Talde txikian

Materiala: Ikaslearen liburua, 30 eta 31.orr.

Bi orrialde hauetan, proiektua burutzeko falta daitezkeen eginbeharrak lau urratsetan adierazten dira:

- Ibilbidearen mapa, datuak eta elementu guztien fitxak garbira pasa.
- Panelak egitea aukeratu duzuenok, irteeran zehar panel hauek dagozkien lekuan jarri. Koaderno txoa egitea erabaki duzuenok, koadernoari azala jarri, baita anilak ere.
- Proiektu bat zein beste egiteko asmoa izanik ere, guraso eta lagunekin batera egun batean irteera egin. Horretarako, eguna eta data zehaztu eta gonbidapenak idatzi.
- Irteera eguna eta orduan gure ibilbidea ofizialki inauguratzeko aukera izango dugu, nahi izanez gero, zinta eta guzti.

Urrats hauek irakurri ondoren, falta diren eginbeharrak zerrendatu, prozedura taldean eztabaidatu eta arduren banaketa egingo dugu. Taldekatzeak, eginbeharren araberakoak izango dira.

67. Gonbidapenak

Lan egiteko era: Talde handian/Bakarka/Talde handian

Materiala: 4. lan- koadernoan, 72 eta 73. or.

Guraso eta lagunei gurekin batera ibilaldia egitera etor daitezten, gonbidapenak idatzi eta bidali egin beharko dizkiegu. Horretarako, lehenengo, lan-koadernoan gonbidapenaren zatiak zeintzuk diren irakurri eta argituko dugu. Ondoren, orri berean adibide gisa agertzen den gonbidapena irakurri eta jarraian honen zatiak bereizi eta gorritz markatu eta izendatuko ditugu. Honen ostean, gonbidapenean agertu beharreko datuak talde handian erabaki ondoren, ikasleek binaka, lan-koadernoan gonbidapenaren zirriborroa idatziko dute. Gero, gonbidapenen trukaketa eta zuzenketa elkarkaria egingo dugu eta talde handian eta arbelean, izandako hutsuneak eta akatsak eztabaidatuko ditugu. Zuzenketak bukatzen ditugunean, gonbidapenak garbira pasa eta bidali egingo ditugu.

68. Sintesia

Lan egiteko era: Bakarka

Materiala: Ikaslearen liburua, 32. or.

Unitate honen sintesi moduan, ikasleek bakarka erantzun beharreko hiru galdera orokor ditugu.

Bigarren galderari dagokionez, bi erantzun mota eskatu diezaizkiegu ikasleei, izendapen edo zerrendatze hutsa, edo bestela iaz hasita, gelan behin eta berriro ikusi eta landu dugun eskema jarraituz erantzutea.

Bukatzean, talde handian eta ahoz, azkeneko irteeraz gain, esperientzia guztiaren kritika eta balorazio egingo dugu.